


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

ETXAIDE 10



Egile eta data ezezagunak
(Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboan)

Deskribapena.

Mehelin arteko eraikina, behe oina eta lau goi oin dituen, gehi bosgarren oin mantsardatu bat. Harlanduzko fatxada behe oinean, eta entokatua goi oinetan, azpadurak nabarmenduta. Behe oinean bao bikoitza, zurezko birgaitzearekin. Formari dagokionez Etxaide 8ren eta 12ren berdina da.

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokitzeko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: 5. goi oina.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.